

Testuliburua

'Laser B2' testuliburua eta ariketa koadernoak erantzunik gabe

Zure ikastaroa

Ikastaroa Cambridge First Certificate azterketa presta dezazun diseinatuta dago. Azterketa prestatzeko ikastaroa da eta arrakasta lortzeko ikasle aktiboa izan beharko duzu ikasgelan zein ikasgelatik kanpo. Aurten, bereziki, etxekolanak burutzea funtsezkoa izango da.

- FCE azterketak bost atal ditu (irakurmena, idazmena, 'Use of English' delakoa, entzumena eta mintzamena). Ikastaroan atal guztiak prestatzeko aukera izango duzu. Testuliburuan azterketaren inguruko informazio baliogarria aurkituko duzu, eta baita hau prestatzeko zenbait gomendio ere. Hau guztia irakurri beharko zenuke.
- Gramatika errepatatuko duzu eta zure hiztegia azterketarako beharrezkoa diren zenbait esparruetarako zabaldu beharko duzu. Oso garrantzitsua da ikasitako guztia errepatatzea eta ikasgelan hartutako notak berrikustea. Esparruren batean arazoak badituzu, ziurta zaitetz klasetik kanpo praktikatzeko duzula.
- Entzumena eta irakurmena praktikatzeko duzu gai zerrenda zabal batean oinarrituta eta azterketarako beharrezkoak izango dituzun estrategietan sakonduz. Era berean, azterketan burutu beharko dituzun ariketa motak ere klasean landuko dituzu.
- Azterketan aukeran eman daitezkeen testu motak ere landuko dituzu ikasgelan (gutun formal eta informalak, artikuloak, erreportaiak, konposizioak, emailak, istorio laburrak eta erreseinak). Klasean idazmena landuko duzu, baina garrantzitsua izango da etxean ere trebetasun hau aldizka lantzea.
- Klasean mintzamena praktikatzeko aukera izango duzu, azterketan azal daitezkeen gaietan sakonduz eta azterketan egin beharko dituzun ariketa motak praktikatu, hala nola, irudiak konparatu eta alderatu eta ikaskide batekin eztabaidatu eta negoziatu.
- Testuliburu bat eta CD-Rom bat izango dituzu egokiak diren hainbat ariketekin, eta ikasketan plan bat egitea komeniko zaizu hauek guztiak lantzeko. Ziurtatu, aldizka, klasetik kanpo ingelesez irakurri eta entzungaiak entzun egiten dituzula zure hiztegia eta gramatika hobetzeko. Lortuko duzun arrakasta egiten duzun esfortzuaren arabera izango da.

Mailaren deskripzioa

Entzumena

- Igorleak garbi hitz egiten badu, eta gaia nahikoa ezaguna badut, grabazio luzeak jarraitzeko gai naiz.
- Ahoskera estandarra duten entzungai desberdinetako (dokumentala, elkarrizketa, telebista-saio edota pelikulak) eduki nagusiak uler ditzaket.

Mintzamen ekoizpena

- Argazkiak konpara eta kontrasta ditzaket, hauen inguruko iritzia emanez.
- Ezaguna zaidan gai baten inguruan nire iritzia azal dezaket.

Mintzamen elkarrekintza

- Beste pertsona batekin jariakortasunez hitzegin dezaket hau nekatu gabe. r
- Testuinguru ezagunetan edo familiarretan eztabaida informaletan parte hartzeko gai naiz, nire ikuspuntua garbi azalduz eta ideia desberdinetara erantzunez. Ingelesa ama hizkuntza duten, eta bere hizkera aldatzen ez duten hizlariekin hitzegitea erronkatzat hartzen dut.

Irakurmena

- Testu luzeak azkartasunez irakur ditzaket eta ideia esanguratsuenak identifikatu.
- Gai familiarrak jorratzen dituzten testu luzeetako puntu nagusienak ulertzeko gai naiz.
- Modu azkarrean konturatzen naiz irakurtzen ari naizen testua nire interesetarako baliogarria den ala ez, adibidez, interneteko artikuloetan.

Idazmena

- Ezagunak zaizkidan gaien inguruan testu egituratuak idazteko gai naiz, nahiz eta gaia nire bizitzarekin zuzenean erlazionaturik ez egon.
- Erregistro zuzena erabiliz eta ideia esanguratsuenak azalduz, laburpenak, artikuloak, gutunak edota emailak idazteko gai naiz.
- Argumentua garatzen duen idazlana idatz dezaket, ikuspuntu baten aldeko edo kontrako argudioak emanez eta aukera desberdinen aurrean diren abantailak eta desabantailak azalduz.

Hizkuntz gaitasunak

- Egitura desberdinak doitasunez erabiltzen ditut: normalean ez dut gaizki ulertzeak sortzen dituzten akatsik egiten.
- Hiztegi nahikoa zabala daukat nire bizitzarekin nolabait lotuta dauden, interesgarriak diren eta orokorrak diren gaien inguruan (irakurri behelaldean) .
- Errepikapena ekiditzeko, gauzak esateko modua aldatzeko gai naiz, baina hitz edo espresio bat ezagutzen ez dudanean urduri jartzen naiz edo beste hitz batzuk erabiltzen ditut.

FCE azterketan ikasleek aurre egin beharko dieten gaien artean aurkitzen dira:

TV/media

Natura

Etorkizuna

Oporrak

Zinema

Arropak

Soinketa

Ezkontzak/harremanak

Musika

Hobbiak

Ingurugiroa

Urtebetetzeak/ospakizunak

Janaria

Garraioak

Lanbideak

Bidaia

Krimenak/legea

Kirolak

Teknologia

Dirua

Hezkuntza/prestakuntza

Gertaerak

Aisialdia

Eguraldia

Argazkiak

Osasuna